

Euskal AEn osasunaren gastu guztia BPGren %8,8 izan zen 2012an

2011ren aldean gastu guztia %1,9 gutxitu da

ELGAko "System of Health Accounts-SHA 1.0" metodologiarekin kalkulaturako osasun gastu guztia 5.663 milioi izan ziren 2012an, euskal BPGren %8,8, Eustaten datuen arabera. %73,2 finantzaketa publikoa eta %26,8 pribatua.

Azken urteetan osasunari emandako kopuruaren aldakuntza BPGren bilakaerarekin bateratsu joan da. 2010ean 5.768 milioi, 2009an baino %2,3 gehiago; 2011n gastua %0,1 bakarrik hazi zen, 5.774 milioi; 2012an %1,9 gutxitu da 2011ren aldean.

Administrazio Publikoen ahaleginaren adierazlea, alegia osasun gastu publikoa gastu guztiaren gainean, %16,1 da Euskal AEn, ehuneko puntu bat gehiago Espainian (%15,1) baino.

1. taula: Euskal AEko Osasun Kontuaren datu eta adierazle nagusiak. 2005-2012

						Aldakuntza-tasa (%)	
						2012(a) / 2011	Urteko batez besteko 2012(a)2005
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTUA (milaka €)	2005	2009	2010	2011	2012(a)		
Finantzaketa publikoa	3.994.669	5.636.111	5.768.253	5.774.603	5.662.970	-1,9	5,1
Finantzaketa pribatua	2.889.805	4.230.867	4.276.976	4.258.789	4.143.089	-2,7	5,3
Biztanleko gastu guztia (eurotan)	1.104.864	1.405.244	1.491.277	1.515.814	1.519.881	0,3	4,7
BPGren gaineko gastu guztia	1.893	2.602	2.656	2.652	2.578	-2,8	4,5
Herri administrazioen gastuen gaineko osasun gastu publikoa %	7,0	8,8	8,9	8,8	8,8	0,0 (*)	1,8 (*)
	15,6	16,3	15,9	16,1	:	:	:

(:) datu ez eskuragarri

(*) Aldekoa, ehunekotan

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Nazioarteko alderaketan, 2011ko datuetatik abiatutik –ELGAK emandako azkenak– ez dago alderik aurreko ekitaldiekiko. **Euskal AEko gastua BPGren %8,8** da, gainerako herrialdeen azpitik. **Per capita osasun gastua EAPn** (Errosteke Ahalmenearen Parekotasunean, \$), 3.695 da Euskal AEn, Erresuma Batukoaren (3.405), Finlandiakoaren (3.374) eta Espainiakoaren (3.072, %20,3 gutxiago Euskal AEn baino) gainetik; taulan goi-goian Norvegia (5.669) eta Suitza (5.643). Finantzazioari dagokionez, Euskal AEn osasun gastu guztiaren %73,8 gastu publikoa da, inguruko herrialdeetan bezalatsu.

2.Taula: Gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2011

	BPGren gaineko gastu publikoa	Gastu guztiaren gaineko gastu publikoa %	BPGren gaineko gastu guztia	Biztanleko gastu guztia (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP,\$)
Alemania	8,7	76,4524	11,3	4.495	39.662
Austria	8,2	76,2408	10,8	4.546	42.186
Belgika	8,0	75,9	10,5	4.061	38.629
Canada	7,9	70,4	11,2	4.522	40.449
Danimarka	9,3	85,3	10,9	4.448	40.933
Espainia	6,8	73,0	9,3	3.072	33.045
Estatu Batuak	8,5	47,8	17,7	8.508	48.113
Finlandia	6,8	75,4	9,0	3.374	37.479
Frantzia	8,9	76,8	11,6	4.118	35.395
Irlanda	6,0	67,0	8,9	3.700	41.548
Islandia	7,3	80,4	9,0	3.305	36.611
Italia	7,2	77,8	9,2	3.012	32.648
Norvegia	7,9	84,9	9,3	5.669	61.060
Erresuma Batua	7,8	82,8	9,4	3.405	36.158
Suedia	7,7	81,6	9,5	3.925	41.461
Suitza	7,1	64,9	11,0	5.643	51.227
Euskal AE	6,5	73,8	8,8	3.695	42.023

EAP: Eros Ahalmenaren Parekotasuna

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua eta OECD Health Data 2013 (Urria 2013)

Eskaintzaren beste adierazle batzuetan –biztanleko mediku kopurua, ospitaleetako batez besteko egonaldia, kontsulta medikoak- eta **osasun-adierazleetan** -bizitza-itxaropena- Euskal AE ELGAko batez bestekoaren gainetik da.

3. taula: Egituraren, osasun jardueraren eta osasunaren adierazleak. 2011

	Medikuak / 1.000 biz.	Ospitaleetako batez besteko egonaldia	Kontsultak / biz.	Bizi esperantza
Alemania	5,4	7,9	9,7	80,8
Espainia	4,9	6,1	7,4	82,4
Italia	6,1	6,8	:	82,7
Belgika	4,9	7,2 *	7,4	80,5
Irlanda (1)	4,2	5,9	:	80,6
Luxenburgo	4,3	7,3	6,6	81,1
Danimarka	:	5,1	6,8	82,2
Erresuma Batua	2,8	6,5	:	81,1
Suitza	3,8	6,5	:	82,8
Euskal AE	5,5	6,8	8,6	82,8

(*) 2010ko datuak

(:) ez dago

Iturria: EUSTAT. Ospitale eta Ospitaleez Kanpoko Estatistika, EUROSTAT y OECD Health Data 2013 (Urria 2013)

Euskal AEKo Osasun Kontuen **azterketa xeheago** batek agerian jartzen du gastu arrunta %97,9 izan zela eta gainerako %2,1 Kapital eraketa gordina (inbertsioa).

Tabla 4: Osasun gastua funtzioen arabera


FUNTZIOA	2010	2011	2012(a)	Osasun gastu guztiaren			Aldakuntza-tasa (%)	
				2010	2011	2012(a)	2011/2010	2012(a)/2011
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.986.412	3.007.122	2.964.914	51,8	52,1	52,4	0,7	-1,4
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	91.017	104.474	105.923	1,6	1,8	1,9	14,8	1,4
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	879.847	913.030	910.753	15,3	15,8	16,1	3,8	-0,2
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	371.420	374.941	372.471	6,4	6,5	6,6	0,9	-0,7
HC.1 - HC.4 Banakako osasun zerbitzuak	4.328.696	4.399.567	4.354.061	75,0	76,2	76,9	1,6	-1,0
HC.5 Kanpoko pazienteei emandako osasun-produktuak	1.011.666	966.432	932.652	17,5	16,7	16,5	-4,5	-3,5
BANAKAKO OSASUN GASTUA	5.340.362	5.365.999	5.286.713	92,6	92,9	93,4	0,5	-1,5
HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak	87.865	82.333	80.816	1,5	1,4	1,4	-6,3	-1,8
HC.7 Osasuneko administrazioa eta aseguruak	183.365	174.971	176.847	3,2	3,0	3,1	-4,6	1,1
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	5.611.592	5.623.303	5.544.376	97,3	97,4	97,9	0,2	-1,4
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	156.661	151.300	118.594	2,7	2,6	2,1	-3,4	-21,6
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTUA	5.768.253	5.774.603	5.662.970	100,0	100,0	100,0	0,1	-1,9

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Gastu guztia funtzioen arabera banatzean, % 76,9 banakoen osasun zerbitzuen izan da. Funtzio hauen artean pisurik handiena Osasun asistentzia sendagarriak du, zeina %1,4 gutxitu den 2011ren aldean. Garrantzian bigarren funtzioa Kanpoko pazienteentzako produktu sanitarioak dira, gastu guztiaren %16,5, 2011n baino %3,5 gutxiago. Egonaldi ertain eta luzeko osasun asistentziaren gastua guztiaren %16,1 da, %0,2 gutxitu delarik. 2011ren aldean gutxitu diren gastu arruntaren barruko beste funtzio bi: Aurreikuspen eta osasun publikoaren zerbitzuak (%-1,8) eta Osasun zerbitzu lagungarriak (%-0,7). Errehabilitazio osasun asistentzia (%1,4) eta Osasun administrazio eta aseguratzeari (%1,1) gehitu egin dira. Kapital eraketa gordina %21,6 gutxitu zen 2012an.

Hornitzaileen arabeko gastu-egitura aurreko urteetako bezalatsukoa da. Gastu zatirik handiena (%40,3) ospitaleetan gauzatu da; ondoren asistentzia sanitario anbulatorioaren hornitzaileak datoz, %27,8. Arreta medikalizatuaren eta egoitzakoaren establezimenduak gastu arruntaren %11 izan ziren (%+1,8), 2011ren aldean hazi den gastu bakarra.

1. Grafikoa. Osasun gastuaren banaketa hornitzaileen arabera. 2012



Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko Osasunaren Kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko Osasunaren Kontu. Datu-bankua